

# Goibekokale

ELGETAKO ALDIZKARIA

1996eko otsaila 10z

F. IRIBAR  
SALBADOR 9-1<sup>a</sup> EZK.

**XVI. MENDEKOTZAT  
GENUEN  
ALTXORRA  
XX.EKO  
KOPIA DA**



*Maderas Gallastegui, s.a.*

**MENDI UZTIAKETA ETA ZERRA MEKANIKOA**  
Azkarreta auzoa 48230 Elorrio (Bizkaia) Tel. eta faxa: 6583061.

## OHARRA

Lehenik eta behin esan, aurreko alean pare bat hankasartze egin genituela: Elkarrizketako atalean Jose Luis Gallastegi, baserritarrari pinua saltzeko esaten jarri genuen berak sartzeko esan eta gero, erretratuan izen-abizenen gora-beherak izan ditugu. Kasu hauetan denbora eza izaten da aitzakiarik errezena baina oraingoan nahiko larri ibili gara aldizkaria lean ateratzeko.

Bestalde, dagoeneko jakingo duzue hurrengo alearekin urtebete egingo dugula herriko notiziak lau haizetara zabaltzen; urtemuga aitzakitzat hartuta 24 orrialdeko ale berezia aterako dugu. Apirilaren 3an izango da eta afari batekin ospatuko dugu urteurrena.

Adi prestatuko ditugun ekintzetara.

Bukatzeko, datuak jasotzeko asmoarekin inkesta bat banatuko dugu hurrengo hilabetean; inkesta hau hemendik aurrera udaletxe azpian egongo den buzoira bota dezakezue. Beste edozein galdera, karta, iritzi edo dena delakoa ere bertan utzi eta guk jasoko dugu.

Besterik gabe, ondo izan.

Erredakzio kontseilua.

## ZURE ESKUTITZEN ZAIN GAUDE!

Atal hau zuen eskutitzen zain dago. Bertan kezka, iritzi, galdera, etab. adierazteko aukera duzue. Eskutitzak izena, bi abizen, telefono zenbakia eta NAN zenbakia izan beharko ditu derrigorrez. Gero argitaratzerakoan, eskutitzaren egileak hala eskatuko balu, inizialak edo gaitzizena agertuko dira. Ez da komeni eskutitzen luzera 15-18 lerro baino luzeagoa izatea. Bidali sobrea *Goibekokale* ipinita edo bota udaletxe azpiko buzoira.

## ERREFLEXIO TXIKI BAT

Zutabe hau idatzi behar nuela esan zidatenean ez neukan batere argi zeri buruz idatzi behar nuen, baina bat-batean futbolari buruz hitz egitea bururatu zitzaidan, beharbada zutabe honetan idazten dutenak inoiz ez dutelako futbolari buruz idatziko edo ez behintzat nik emango diodan ikuspuntutik.

Azkenaldi honetan futbola kritikatzeko modan dago, futbola gizarteko gaitz bat dela, futbolzaleek hobe luketela futbola ikusteari utzi eta liburu gehiago irakurriko balute... horrela pentsatzen duen jendeari inongo afiziorik ez duen galdetuko nioke.

Futbola kritikatzeko duzuenok beharbada arrazoi izango duzue astean zehar telebistan futbola besterik ematen ez dutela esatean edo eta astelehenetako egunkaria erosteak ez duela merezi, kirolez (batez ere futbola) blai agertzen delako; guzti honen errua futbolzaleari leporatzea larregikoa iruditzen zait.


Idatzi honen helburua ez da futbolaren aurka daudenei bere ideia aldaraztea, baizik eta beraiek duten ikuspuntuaz gain, gehiengo batek dugun ikuspuntua aditzera ematea eta bide batez aurreko alean *Goibekokale* kolaboratzaile batek esaten zuen bezala buruan ditudan ideiak paperera pasatzen saiatzea. Erreflexio txiki bat.

Haritz Gallastegi

*Estampaciones*

**Elgeta**

Estanpaketa orokorra,  
Prensa automatizatuak 250 tonaraino,  
Serie handietan espezializatua.



## Kirola Euskaraz

**J**akina da gero eta denbora libre gehiago dugula, jakina da baita kirolak gero eta garrantzi gehiago duela aisialdian; jakina da, halaber, eskola umeek ikastetxeetan euskaraz edo elebitan ikasten dutela eta

jakinak diren gauzeekin bukatzeko jakina da euskaldunak garela, eta normalena euskaraz mintzatzea izango litzatekela.

Baina beste arlo askotan gertatzen den bezala, normaltasuna arraroa da. Deba Bailaran haur, gazte eta helduekin egiten den kirolik gehiena gaztelaniaz izaten da; eta egia esan aitzaki ugari jarri daitezke: apunte edo libururik ez dagoela, niri gaztelaniaz erakutsi zidatela, ez dudala hiztegi espezializaturik ezagutzen, etab.

Beste kasuetan bezala zailena hastea da.

Deba Bailarako udalerriek arazo hauei konponbidea aurkitzeko, **Kirola Euskaraz** programa jarri zuten martxan duela hiru urte, eta programa honen emaitzak dagoeneko ikus daitezke: bi liburu argitaratuak "Futbol entrenatzailea", eta "Kirol entrenamenduaren oinarriak", Atletismo, Txirrindularitza eta Boleiboleko monitoreak hezitzeko ikastaroak eta beste hainbat ikastaro dibulgatibo: ur azpiko kirola, patinajea, kirol bendajeak, rugbya etab.

Hau guztia iraganari dagokionez, eta garrantzi handia du, baina askoz inportanteagoa da etorkizuna, hemendik aurrera egin behar dena, bai udaletatik baita herritar guztion partetik ere. Udaletatik eskubaloia, rugbya eta saskibaloia erakusteko materiala prestatu dute eta makina bat ikastaro eskainiko dute epe laburrean, beste hainbat gauzakin batera. Baina herritarren eskuetan dago gakoa, guztion ahaleginetan, euskaraz aritzeko, kirol arloan eta beste arlo guztietan, aitzakiak alde batera utziz.

Iñaki Ugarteburu



## "Aiten etxea" elkarte

**E**uskal Herrian emaztearengandik banatuta dauden aitek elkarte berria sortu dute, eta "Aiten Etxea" ipini diote izena elkarte eratu berriari. Aita-talde honen helburua, epaileek beraiekin

duten jarrera injusto eta diskriminatzailearen aurrean defendatzea izango litzateke, banaketak ez baitu esan nahi aita izateari uko egiten zaionik. Elkarte honetan sartzeko baldintza bakarra dago: emaztea inoiz indarrez ez erabili izana.


"Aiten Etxea"-k umeak betiko etxean gelditzea proposatzen du, eta gurasoak izan daitezela aldatzen direnak; urte batean aitarekin, eta hurrengoan amarekin, hau da, urtetik urtera seme-alabekin biziko den gurasoa aldatzea. Eta noski, amarekin batera umeen heziketa, hau da, ikastetxe kanpo-ekin-tzak... aukeratzeko eskubidea aldarrikatzen dute.

Nik neuk uste dut, elkartekideek arrazoi dutela epaileek aitarekiko jarrera diskriminatzailea dutela esaten dutenean, argi baitago kasu gehien-gehienetan seme-alabak amarekin gelditzen direla. Eta ondoren burura galdera hauxe datorkit: nola liteke emakumea guztiz diskriminatua dagoen gizarte batean (ez dira zaharrak Felez fiskalaren eta Cardenal epailearen deklarazioak) epaileek gizonen kontrako jarrera izatea? Eta erantzuna ematen ez da zaila. Epaileen jokabidea ez da emakumearen aldeko eta gizonaren kontrako, ezta pentsatu ere. Epaileak eta legea MATXISTAK dira, eta gizonak (behingoz) matxismoaren biktimak baino ez dira. "Nola utziko dituzte seme-alabak aiten esku? Gizonek ez dakite umeak zaintzen, horretarako emakumeak daude." Pentsakera honen ondorioa da aitek sufritzen duten diskriminazioa edo injustizia.

Honen aurrean eta gizarte hau justoagoa izan dadin, denoi, bai andra eta bai gizon, berdintasunaren alde borrokatzea baino ez zaigu gelditzen.

Begoña Izagirre

Argitarapen honen edizioko laguntzailea



kutxa fundazioa



Eusko Jaurlaritzako Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Aldizkari honen argitaratzailea

## GOIBEKOKALE

**Argitaratzailea:** Elgetako Gazte Asanblada. Gudarien Bidea 2. Elgeta 20690. **Laguntza berezia:** Ozkarbi elkarte. **Koordinatzaile** Ana Gillegi. **Erredakzio kontseilua:** Iban Aranzabal, Gaizka Bolinaga, Haritz Gallastegi, Ana Gillegi eta Bittor Gallastegi. **Erredaktoreak:** Oxel Erostarbe, Gorka Arizmendiarieta, Juan Ramon Irazabal. **Maketazioa:** Bittor Gallastegi. **Fusker arduradun** Iban Aranzabal. **Argazkien erregelazioa:** Txuri-Beltz argazkizale taldea. **Komikia:** Igor Arizmendiarieta. **Horroroskopoa:** Ait Ubera. **Kolaboratzaileak:** Begoña Izagirre eta Iñaki Ugarteburu **Administrazioa:** Esti Retolaza, Susana eta Olaia Jimenez. **Publizistak:** Onditz Billa eta Eider Etxaniz (Tel: 768019). **Banaketa:** Ikastola. **Tirada:** 500 ale. **Inprimategia:** GERTU koop. (Zubilla, Oñati). **Copyright-a:** EGA. **Lege-Gordailua:** SS-475/95. **ISSN:** 1135-3538.

## ELURRA ETA HAIZEA OTSAILEKO PROTAGONISTAK

-Hamarkadako elurterik haundiena, 60 zentrimetrotaraino heldu da-

Azken urte hauetan Elgetak ez du ezagutu horrelako elur ekaitzik. Irrati eta telebistan esan eta esan ari baziren ere, harrিতuta utzi gaitu mantu txuriaren tamainak. Hainbat egunetan egon dira itxita herrirako bideak eta baserrietan oztopoak bazeuden ere, herriko kaleetan ez da gutxiagorako izan. Egunetan ibili dira elur makinak batetik bestera eta lan haundia egin dute herria bere eguneroko bizira ekartzeko asmoz.

Eskolako umeek jai izan zuten ia aste guztian eta ihauteri eguna ere atzeratu beharra izan zuten; kanpoan ikasten edo lanean zeudenak komedia asko egin zituz-

ten beraien egin beharrekin jarraitzeko; oinez edo traktoreetan mugitu dira hainbat herritar egun hauetan. Herriko fabriketara etortzeko ere ez zuten hain errez izan eta lana bertan behera utzi zuten askok.

Berez arrunta omen da garai hauetan honelakoak izatea eta honelako elurteak lehen sarri izaten ziren. Hala ere, asko eta asko harripatu ditu ekaitzak ustekabeen eta baserri askotan irtetzerik ez zuten izan ia astebururaino. Elurtea amaituta eta eguzkia berotzen hasi orduko urtzen hasi bazen ere, gauean izotza ekarri zuen eta hainbat bide eta herriko ibilbideak lehen orduetan behintzat zeharo izozturik agertzen ziren.

Batzuentzat jaia eta jolasa ziren orduak, beste batzuentzat lana eta atzerapenak ziren. Baina otsailaren amaiera zuri izan den arren, hasiera baserriar askorentzat behinik behin beltza izan zen. Haize erauntsi



Pinadi osoan izan ez bada ere, kalte handiak eragin ditu haizeak.

batek pinadiak, teilak eta teilatuak hankaz gora jarri baitzituen. Ondorioz pinadietan kalte izugarriak izan dira; mozteko zeuden pinuak apurtu edota sustraitik atera baititu eta sartu berriak ziren pinuek kalte haundiak jasan baitituzte. Beldurrik haundiena, egurraren prezioen beherakan dago orain, miloi askoko galerak ekarriko dituelakoan baitaude.



Bidea, izarreko bueltan erabat itxita geratu zen.

*Pinadiak jasan duten kaltearen ondorioz, jabeen ardura egurraren prezioak izango duen beherakadan dago. Urte gutxi dituzten pinadiak ere, haizearekin lehenengo eta elurrarekin gero, astinaldi haundia jasan dute..*

### IBAIBARRIAGA GARRAIOAK

E.Ibaibarriaga  
Tel: 768072  
Salbador zeharbidea 2  
ELGETA

### ANA LIBURUDENDA

LIBURUAK  
JOSTAILUAK  
ALDIZKARIAK  
ESKOLARAKO TRESNAK  
Salbador kalea 1, Tel: 76 80 78 Elgeta

### BILTEGI DENDA

Kirol, Burdin, Menajea.  
Zugandik gertu, behar duzun beste.

SALBADOR 24  
Tel: 76 82 06

## UMEEN IHAUTERIAK KALE, GAZTEENAK BALE.

Argazki honetan ageri direnak ez dira martitzen arratsaldean mozorroturik zeudenak. Zapatu arratsaldea zen, eta zenbait familiak helburu bakarrarekin irten zuten mozorrotuta: ondo pasatzea. Ziur lortu zutela.

Martitzen arratsaldean umeen jaia bertan behera geratu eta gero, Elgetan sekula ezagutu ez den bezelako giroa izan zen. Jendea mozorrotuta, umore ona eta juergarako giroa. Eguraldiak jendea herrian geratzea eragin



zuen, baina, ez etxean geratzea. Elurra mara-mara goian behera izan arren, jendeak beteta ikusi zuen zapatukoen helburu bera.

### Bertso Afaria

Martxoaren 22rako, bertso afaria antolatu du Elgetako HBk Panaderokua Tabernan. Hurbilduko diren bertsolariak, Peñagarikano eta Solozabal izango dira. Afarira joan nahi duenok, izena eman Xabierrenean edo Panaderokuan. 2.500 pta izango da kostua eta menua hauxe: Arrain-zopa, saiheskia, postrea eta kafea.

### Abizenak Euskaraz

*Goibekokalek* antolatuta, abizenak euskaraz ipintzeko aukerak zabalik dirau Martxoaren azkenera arte. Martitzen eta eguenetan 7etatik 9etara bitartean liburutegian egiten da. Bertan jasoko duzu informazioa eta beraiek arduratuko dira lan guztiaz. Dagoeneko 20 pertsona inguru hurbildu dira asmo honekin, ez galdu aukera.

### Goibekokalen Urteurrena

Apirilean urte bat izango da aldizkaria sortu zela. Egun hau ospatzeko aldaketa ugari sartu ditugu aldizkarian eta jende gehiago arituko da lanean. Lau orrialde gehiago luzatzea lortu dugu jendearen parte hartzea haundituz, eta horien artean Angiozarrek ere bere tokia izango du.

Aurrerago jakinaraziko dira egingo diren zenbait ekintza. Hala ere, apirilaren 3an izango duzue alea esku artean eta egun horretarako afaria antolatu dugu Ostatuan. Izena emateko Haizeara edo Ostatura hurbildu (2.500 pta).

### Motorren Kontzentrazioa Atzeraturik

Udaletxeak atzeratu egin du eguraldiaren arazoak direla eta. Bilera berri batean, zein egunetan egingo den esango dute. Atzeratu arren, makina bat motordun egon ziren Elgetan.

## ZABALA HERMANOS S.A. BILBOKO ERAKUSKETAN

Zabala Hermanos S.A., Elgetan eskopetak egiten dituen enpresa, Bilbon izan zen ehiza, Arrantza eta Armagintzarako egiten den nazioarteko erakusketan.

Ia 150 enpresa eta erakusle aurkeztu dira aurtengo feriara. Valentzianere egiten da beste bat, baina Bilbok antolatu duen erakusketa honek, kalitate eta enpresen aldetik, hobekuntzak eta aurrerapenak eskeini ditu.

Nazioartetik eta Estatutik iritxitako jende ugari bildu bada ere, Elgetak eta batik-bat Eibar eta inguruotan dauden hainbat

tailer eta enpresek beraien tokia izan dute ekitaldi honetan.

Azken urteetan gainbeheran egon den sektore honek, susperraldi bat bizi duela esan dezakegu. Krisi larriak jota arazoak izan ditu Elgetako tailer honek ere, baina egindako lan haundien ondorioz eta kanpora begira jarri behar izan duelako, momentu gozoagoak bizitzen ari dela esan dezakegu. Eibar eta Plazentziako enpresekin batera, urteetan izan dira aintzindari eskopeten sektorean Zabala Hermanos enpresakoak.



# IRAMA

## ELEKTRIZITATEA

INSTALAZIOAK ETA MANTENTZE LANAK  
24 ORDUKO ZERBITZUA MENSATEL: 900282828  
Abonatua 247262 Tel: 789057- 768025 Salbador 3

# HAIZEA

## TABERNA

Salbador 5

Tel: 768256


ELGETA

## Martxoak 8 emakumeen eguna. Zer pentzatzan jatzu emakumeen eguna zelebratzia? Zeaittik?




**Josune Garro**  
Ikaslea ( 17 urte)

Nere ustez egun hori ondo dago, emakumien alde gauzak eñ biha dia. Emakume eta gizonen artian ez dare eskubide igualak eta nere ustez ipini eñ bihako zian.



**David Peñalver**  
Ikaslea ( 18 urte)

Ondo pentsatzen jata, eskubidia dake egun bat eurei dedikatzeo eta. Gizonezkuok eta emakumiak eskubide bardinak euki arren emakumiak zapalduta dare.



**Jesus Gonzalez**  
Bihargina ( 40 urte)

"Emakume langileen eguna" garbi dago zelebrazu biha dala, emakume eta gizonen artian eskubide bardinak egon biar dialako.




**Ane Aranzabal**  
Bihargina (35 urte)

Nik uste dot biharrezkua dala egun hau zelebratzia, gizon eta emakumiak deretxo bardinak euki bihoula aldarrikatzeo egun egokixa da eta.



**Pilar Ruiz de Egin**  
Etxekoandrea ( 59 urte)

Egun horren zelebrazinua biharrezkua da, emakume eta gizonen artian ez dao igualdade bardinik eta.



**Manu Sarasua**  
Bihargina ( 52 urte)

Emakume eta gizonen artian deretxo bardinak dare, nere aldetik behintzat emakumiak ez dare zapalduta, eta pentsatzen dot Euskadi mailan be ez darella zapalduta. Nere eritxiz emakume eta gizonak maila berian dare.

**OSTATU**  
**JATETXEA**

Gudarien Bide  
Tel: 76 80 23  
ELGETA

Eguneko menua 800 pta.  
Karta

**BOLATOKI**

**TABERNA-JATETXEA**

Berezitasuna: Buztana.

Pintxo goxoak, otartekoak.

Elorrio bide z/g Elgeta. Tel: 943/768284.

## Elgeta:

### Martxoak 1

**Dantza ikastaroa:** Asentzio eguna hurbil dagola eta EGAk dantza ikastaroa antolatu du; izen ematea Haizea tabernan (azken eguna martxoaren 8a). Saioak, zapatu eguerdian izango dira.

### Martxoak 5-10

**Erakusketa:** Euskal Herriko zez-togintza. Udaletxean izango dugu ikusgai Martxoaren 5etik 10era bitartean. Goizetan umeentzako egongo da zabalik eta arratsaldean nagusientzat 6etatik 8etara. Baita zapatu eta Domeka eguerdian ere.

### Martxo 23

**Motorren kontzentrazioa:** Egu-raldiak lagundu ez zuela ikusita hilaren 23an egitea pentsatu da.

### Martxoak 29, 30 eta 31

**EGIko akanpada:** EGI eguna aurt-en Elgetan ospatuko da Martxoaren 29, 30 eta 31n.

### Apirilak 3

**Goibekokale urtemuga:** Afari herrikoia egingo da. Eman izena Ostatu edo Haizean.

## Sabin Urcelai

### Bankerua (43 urte)

**Noiztik lan honetan?** Hamabost urte pasauta.

**Zer da zure lanetik gehixen gustatzen jatzuna?** Jentia-kin kontaktua dakatela.

**Aberats asko dago Elgetan?** Leku guztietan moduan.

**Iñoz ohoztu dabe?** Ni bederatzi urtian nago hemen eta nerekin ez, baina lehenau atrakoren bat egondala uste dot.

**Jentia- jakerotik etaritzen dau dirua ala molestatzera etortzen da?** Geruau ta geixau kajatik atratzen dau, batezbe gazte jentia- k, baina jende edadeduak be ateratzen dau gero ta gehixau.

**Badago dirua errez eitteko formularik?** Zeguru dauela, batzuk badakixela eitten garbi dago.

**Gustauko jatzun Elgetan bizitzia?** Bueno, Bergaran oso gustora bizi nai baina ez jatan inportako.

**Bankuan daon diru dana zuria balitza zer eiño- g zinue?** Oin momentuan ideaik be ez daukat.

**Inoiz topau dozu bilete faltsurik?** Behin bai, uste dot zala bost milako

bat, nahiko erreza ian zan falsua zala konturatzia.

**Hobbirik badaukazu?** Bai, irakurtzia eta musika entzutea.

**Zer musika entzuten dozu?** Danetik, musika dana gustatzen jata.

**Sinisduna za?** Ez asko.

**Lanerako korbata ala erropa normala?** Erropa normala.

**Gauza politten bat esaten dotzue bankora etortzen dianak?** Bai, oso jente sinpatikua dago. Ta gauza txarrik? Baita.

**Ze taktika erabili ziñuan ligatzeko?** Lehen erabiltzen zana, plazara joan dantzauttera,...

**Zer iñ ziñuan lehenengo soldatiakin?** Ez nai gogoratzen, urte asko pasau dia eta.

**Goibekokale diruz pobre dabil, nun inbertitzia gomendauko**

**zeinkio?** Diru gutxi baldin badauka nekez izango da ondo inbertitzia.



## Horroroskopoa

♈ <b>Aries:</b> Noizian behin izardixa ateratziak eztau kalteik eitten.	♉ <b>Taurus:</b> Txikitan ez huen jolastu eta orain jubilau ta gero umiak baino okerrago?	♊ <b>Geminis:</b> Zu muse-orako modukoa zara. ij mounstruo!!	♋ <b>Cancer:</b> Sua eta garra.... Berotuta habillen seiñalia?
♌ <b>Leo:</b> Urte guztia bakaziñuekin eta orain oporretara zoazela???	♍ <b>Virgo:</b> Bat, bi, hiru, lau... zenbat buelta armaixura betiko erropia jatzeko?	♎ <b>Libra:</b> Trenian ibili zaittez aspaldiko partez.	♏ <b>Escorpio:</b> Zure hortzak liluragarriak dira "Drakula" filmea egiteko.
♐ <b>Sagitarius:</b> Erretra-tuan txarto urtetzen dozuela? Zeinentako esan bihar.	♑ <b>Capricornius:</b> Elixan ordu estrak sartzeak ez jok merezi, etxuek pagatzen eta!	♒ <b>Acuarius:</b> Horrek dia begixak, mozkortuta, lo faltia ete? Bakot-jak jakingo dau.	♓ <b>Piscis:</b> Horrelako muturrak... egun bat txarra egin orduko.

## ALDI DENDA

(GRUPO IFA)

IGANDE GOIZETAN ERE ZABALIK: 9-12.

Andra Mari Plaza 2. Tel: 76 80 98.

## GORROTXATEGI

### HARATEGIA

Andra Mari Plazan zure etxetik gertu.

Tel: 76 81 72.

## EDORTA KORTABI: "OSO ONA DEN KOPIA BATEN AURREAN GAUDE"

Otsailaren 16an izan zen ikerketa honek eman dituen emaitzen aurkezpena Donostian. Han bildu ziren Diputazio, Eusko Jaurlaritzaren eta Gotzaitzegiko zein beste erakunde batzuetako ordezkariak. Edorta Kortabik, Donostiako Jesuiten Unibertsitateko ordezkariak, "kopia oso on baten aurrean" gaudela azpimarratu zuen.

Sakristian zegoen ustezko triptiko flamendarra (XVI. mendea) XX. mendekoa dela ziurtatu du "Restauraciones Siglo XXI" ko bilbotar taldeak. Azken emaitza honetara heltzeko, hainbat ikerketa saio egin dituzte. Ikerketaren ondorioekin, Donostiako Elizbarrutiko museoan, aurkikuntzaren aurkezpena egin zuten. Bertan bildu ziren besteak-beste, Xabier Martiarena Diputazioko berrikuntza lanen zuzendaria, Imanol Sorondo (Gozzaitzegiko arte arduraduna), Edorta Kortabi eta Koldo Apeztegia (Elizbarrutiko museoaren zuzendaria).

Ikerketa taldea zuzendu duena, Eusebio Cornera izan da. Bilboko lan taldeaz gain, Madrilgo beste talde garrantzitsu bat aritu da: Enrique Prada Gredo (Zientzia Kimikoetako doktore eta Alfonso X El Sabio Unibertsitatekoa) eta berekin Carmen Garrido.

Emaitzen ondorioek hankaz gora uzten ditu orain arte triptiko honetan espezialdua kontside-

ratzen zen M<sup>a</sup> Asunciòn Arrazola-ren teoriak. Berak, Eusko Ikaskuntzarentzako idatzitako liburu batean deskribapen oker bat egin du. Bestetik, aurreko ikerketa okerrean oinarriturik, Gipuzkoako ondare artistikoaren barruan sartuta zegoen Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo sailak egindako inbentarioan, honekin, ondorioztatzen dena zera da, orainarte ez duela inork benetako ikerketarik egin.

### Triptikoaren deskribapena:

Hiru atal ditu eta nagusia erdikoa da. Erdian Ama Birjina Umearekin agertzen da eta eskuinean, San Jose dago, frailez jantzita, eskuan liburu bat eta betaurreko batzuk ditu; ezkerrean, aingeru bat agertzen da Umeari mahatsa eskeintzen. Atzekaldean flamendar itxurako paisaje bat dago.

Eskuineko oholean, Juan Bautista Aranbururen erretratua dago; itxuraz bera izan da lan hau eginarazi zuena parrokiarentzat. Ohitura hau orduko burges, noblezi eta aristokratena zen. Marinel ezaguna omen zen eta Sostoako armarria du; gaur egungo Sestoia izan daitekeena.

Ezkerreko oholean, marinelaren Santua, Juan Bataiatzailea dago.

### Non daude ikerketaren giltzak?

Estilo flamendarraz ari garenean, detaileak bereziki lantzen dituen arte batez ari gara. Elgetako triptikoak, detaile guztiak bikain ditu landuak baina salbuespen batekin; koadroaren ertzean dauden pintzeladak, apurru eginen dute egitura hau, sendoak eta detailerik gabekoak baitira.

Triptikoa eusten duten oholak, errefortsu baten beharra dute atzeka aldetik eta hau egon ezik erori egingo litzateke egitura osoa. Flamendar artean hau ez litzateke inoiz gertatuko, huts nabariegia litzatekelako.

Baina xedea, pinturen analisisetan dago. Historian zehar, aldaketa nagusienak jasan dituen kolorea zuria izan da; hau dela eta, triptikoko toki ezberdinetatik hartu dira zatitxoak. Bilbon eta Madrilen egin dituzte azterketak eta konklusio berera heldu dira; kolore zuri horren izena "Blanco de Titanio" izenez ezagutzen dela eta 1920. urtetik aurrera hasi zela erabiltzen. XVI. mendekoan aldiz, "Blanco de Plomo" deritzana erabiltzen zen eta ez dago honen aztarrenik.


Donostian bildutakoek, duda bat azaldu zuten, "Blanco de Titanio" hori ez ote zen izango mende honetan egindako berriztapenen baten erabileraren ondorioa. Eusebio Cornerak, triptikoari egindako hainbat erradiografia erakutsi



**Erosle**

M. Asun Agirre

Salbador 26. Tel: 768190



**KONTXI  
ARRANDEGIA**  
Salbador 5 Tel: 768009



**METALEN  
SALEROSKETA**

ANDONI BOLINAGA

Salbador 7  
Telf-Faxa: 768064 Elgeta



zituen eta koadro osoa kapa bakar baten egina zegoela erakusten zuen; hau da, urteetan egin daitezkeen konponketa txikienak ere agertu daitezkeela froga horretan, baina ez zegoela horrelakorik.


Azken hipotesia, margoen edo erabilitako pinturen produkzioan bertan zegoen. Lehen esan bezala, arte flamendarrak detaileak bereziki zaintzen zituen eta margo-arekin ez zen gutxiagorako; XV-XVI. mendean eskuz ehotzen ziren pigmentuak eta emaitza ointura fin bat zen. Elgetako triptikoan agertzen denak ehotze sistema desberdina jarraitu du, industrialia hain zuzen ere eta hau asko nabaritzen da, askoz sendoagoa baita.

Ondorioa beraz, hau kopia bat dela da, hala ere bide asko irekitzen ditu eta galdera ugari.

### Beti egon al da kopia hau Elgetan edo gerra garaiko aldaketa bat da?

Orainarteko informazioen arabera, Elgetako Triptikoa bezalako bat aurkitu dute Madrilen, baina honi alboko bi oholak falta zaizkio. Koadro hau, XVI. mendean margotu zen Adriaen Ysenbrant-en eskutik (Brujas-Belgika).

Gerra denboran, eta frentea Elgetan zegoela kontutan izanik, ondare artistikoa Euskal Herritik atera zen. Triptikoaren ibilbidea honako hauxe: Elgeta-Bilbo-Frantzia eta gerraren ondoren, Frantzia-Madril-Elgeta. Momentuz funtsezko datu bat ere falta da, 1920az aurretik ia norbaitek ezagutu zuen Elgetan triptiko hau, eta horrela



Bi argazkiotan, triptikoa lehen zegoen moduan eta orain dagoen bezala ikusteko aukera duzue. Txuri beltzean edo koloretan ikustea berdin a ez denez Donostiara joan edota Elgetara ekarri arte itxaron beharko duzue. Elgetar gehienak ezagutzen duten lan hau konpondurik ikustea merezi izango du. Berritze lanetan 368. 200 pta gastatu dira; triptikoa, aldarearen erdian ipiniko dute konponketa lanak bukatzen direnean.

balitz gerra garaian kopia baten-gandik ordezkatua izan zela konfirmatuko litzateke. Data hori oso

garrantzitsua da, orduan erabiltzen hasi baitzen lehen aipatutako "Blanco de Titanio" kolorea.

*Emaitzen ondorioek hankaz gora jartzen dituzte orainarte triptiko honi buruz zeuden ikerketak. Benetako azterketa egingo dela espero da datu berrien aurrean.*

## ZABALA

Lasao 6 Elgeta  
Tel: 768075-6 768225  
Faxa: 768201



## HERMANOS S.A.

EHIZARAKO  
ESKOPETA EGILEA


# DENON ESKU DAGO NATURA ZAINTZEA

**Ale honetan, 7. mailakoek birziklapena zer den eta beraiek nola ikusten duten esan digute.**

**Birziklatu beharra dagoela errepikatzen digute guztiek; hala ere, beraien hitzetan, "zoritarrez jendea oraindik ez dago oso konzientziatua". Espero dugu hitz hauek hutsean ez geratzea eta aurrerantzean kontu gehiagoz jokatzeko. Bai naturak eta bai guk zer irabazi handia izango dugu.**

Oihana eta Itxarok honela diote, "Jendea ez da konturatzen gauzak birziklatu daitezkeela, eta gauza asko alperrik galtzen ditugu. Elgetan birziklatzeko kontenedore gutxi daude eta jendeak segituan betetzen ditu kontenedoreak. Horregaitik beti lurlean botata egoten dira birziklatu daitezkeen gauza guztiak. Guk, mesedez eskatzen dugu, ahal ditugun gauza guztiak birziklatzeko eta baita ere kontenedore gehiago ipintzeko Elgetan. Guk, esaten ditugun gauza guztiak kontutan edukiko dituzuela espero dugu.

Andoitzek, Igorrek eta Aitorrek, pilak ere birzikla daitezkeela esaten idatzi digute, zeren eta "pilak arriskutsuak dira; pila batek gizonari bizitza izorratu diezaioke."



Mikel Ormaetxeak eta Mikel Alberdik, jendeak konturatu gabe kutxatzen duela diote eta hori ez gertatzeko modu simple bat proposatzen digute. "Oso dibertigarria da; elikopteroak, abioiak, robotak, barkoak, kotxeak, kamioiak, balantzak eta beste hainbat gauza egin daitezke." Bi hauek zera gaineratu dute, "denok saiatu behar dugu gauzak birziklatzen eta natura ahal

den gutxien kutxatzen."

Azkenik, Estibalitz Askasibar eta Izaskun Ojangurenak, jolas hauek nola egiten diren esanez idatzi dute, "gauza erraza da, material bat berriro erabiltzea da, hau da, guk natura zaintzeko egin behar duguna."

Denon galdera bat da; kasu egingo al digute nagusiagoek? Nahi genuke horrela izatea, Kristal beira eta papera birziklatzeko lekua badugu Elgetan, ea plastikoa birziklatzekoa ere laster jartzen duten. Naturak eskertuko digu eta denok izango gara garaile.



## PANADEROKUA TABERNA

CONCHI IDIGORAS  
LARUNBATA ETA IGANDETAN  
BERTAKO BABARRUNAK  
SAIHESKIA ERRETA

ELGETA

TEL. 76 82 73

## ZELETA JATETXEA

IÑAKI GOROSTIZA

Eguneroko eta kartako menua  
San Roke 2 .Tel: 768151

# LEHIAKETA

Ale honekin batera azkenurreko kamiseta banatu dugu. Zor-tea izan duena **Ibai zabaleta** izan da. **ZORIONAK!**


Azkenurreko kamiseta dela eta sekula baino jente gehiagok idatzi du *Goibekokalera* eta erantzunak mota guztietakoak izan badira ere, askok esan ditu zuzen baserriaren izena eta non kokatua dagoen. Baserria, **Aixola bekua** da, eta esan beharrik ere ez dago non kokatuta dagoen.

Elgetako Gazte Asanbladak aldizkaria sortu zenetik erregalatu ditu kamisetak, baina, **adi!!!!**

**Hilabete honetako** izango da azken aukera kamiseta dotore hori eskuratzeko.

Egin behar duzuen denok dakizue dagoeneko. Asmatu beharrekoa, erreinuko izaki biziduna dela dio hiztegiak, Kanidoren familiako ugaztun karniboroa dela eta otsoen hortzeria berbera duela.

Pista larregi ezta?



Banatu behar dugun azken kamiseta izanda ez dugu zaila ipini izan nahi, ea sekula baino erantzun gehiago jasotzen ditugun. Erantzunak bidali *Goibekokalera*.

Izena eta abizena: \_\_\_\_\_  
 Erantzuna: \_\_\_\_\_  
 Bizilekua eta telefonoa: \_\_\_\_\_

## KOMIKIA




## DAGOENeko FINAL LAURDENETAN DAUDE GURE ORDEZKARIAK EUSKAL LIGAN

Sailkatze fase oso ona egin ondoren bai nagusiak eta baita jubenilak ere Euskal Ligako final laurdenetan daude dagoeneko. Berraondo eta Iñurrategik -Ubera Iak soldaduzka dagoelako ez du jokutzen- Pinedo eta Biasteriren aurka 22-11 irabazi ondoren sailkapena lortu zuten. Ondorioz, Sestanon jokatu beharreko partidua Aranzeta eta Barrigonek jokatu zuten 22 eta 8 galduz.

Jubenilek berriz, ezin izan zuten Trizion irabazi eta aste bete itxaron izan behar izan zuten sailkapena lortzeko. Elgetan izan zen eta Idiazabalgoei 22-10 irabazi ondoren lortu zen. Ondoren Maeztun ere irabazi dute (22-9). Bitxikeria bezala esan, Trizion jokaturiko partiduan zehar jarrera ezegokia

erakustearren Peñalverrek ezin izan dituela hurrengo partiduak jokatu. Bere ordez Laskurainek jokatu dute.

Asteburu honetan jokatu dira hain zuzen ere Euskal Ligaren final laurdenak. Gure ordezkariak ezberdina izan dute. Lehenengo jokatu zen partiduan Ubera IIak eta Laskurainek 8 eta 2 irabazten hasi arren ezin izan zituzten Blanco eta Tejero (Ortuella) gainditu. Azken emaitza 22 eta 10ekoa izan zen. Bigarren partiduan Berraondo eta Iñurrategik erraz gainditu zituzten Artola eta Etxeberria Segurarrak (22-8) eta finalerdietarako sailkatzeko aukera haundiak dituzte.



Xabierrek eta Laskurainek ezin izan zuten Ortuellako bikotea gainditu.

### 4 t'erdiko txapelketan izen emateko epea zabaldu da.

Elgetako 4 t'erdiko txapelketan izen emateko epea zabaldu da jadanik. Aurten, urtero bezala, bi maila egongo dira, jubenilak 1980-81 ezkeroz jaiotakoak eta nagusiak 1972 ezkeroz jaiotakoak.

## ESTAMPACIONES ELGETAK TXAPELKETA IRABAZTEKO AUKERA DENAK GALDU DITU

Azken hiru ihardunaldietan bi porrot jasan ondoren Estampaciones Elgetak Eibarreko txapelketa irabazteko ia aukera denak galdu ditu. Hasiera batean bazuridien txapelketan lehenengo doazena lehen partidua galdu zutenean torneoa irabazteko aukera haundiak izango zituztela baina hurrengo ihardunaldian, partidua ona jokatu arren, gaur egun bigarrenak doazen Vicky Leytonen aurka hiru puntugaitik galdu zuten hasierako

egoera berdinerantz itzuliz.

Partidua hau galdu arren sailkapeneko bigarren postuari eustea lortu zuten baina hurrengo ihardunaldian txapelketa erabaki dezakeen porrota heldu zen. Lehen itzulian lau jokalarirekin irabaztea lortu zutenen aurka ezin izan zuten garaipenik lortu partidua negargarria jokatu ondoren. Azken ihardunaldian garaipena lortu dute eta bide batez bolada txar hau moztu, nahiz eta gaizki jokatzeko jarraitu.

Joko txarraren zergaitiak aztertzerakoan izen bat datorkigu denori burura: Angel. Arrazoi ezberdinengaitik ezin izan ditu azken hiru neurketak jokatu eta taldeak asko nabaritu du. Egoera sailletan Angelek erabakitzen zuen neurketa eta azken hiru neurketetan ez du inork ardura hori hartu. Orain, txapelketa irabazteko bide bakarra partidua guztiak irabazi eta aurkakoen akatsak itzarotea da.



**GRONDO**  
elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismok
- \* Proiektuak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak


Musakola, 26. Kataide industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa.  
Tel: 797815/771042 Faxa: 771476 ARRASATE.

**VIVO**  
JANARI DENDA

**M<sup>a</sup> JESUS  
ARRAZOLA**

Tel: 76 81 31

# NESKEN TXAPELKETA INOIZ BAINO INTERESGARRIAGOA DATORKIGU AURTEN



Patxi Taberna nahiko denboraldi ona egiten ari da.

Beharbada nesken txapelketa joko aldetik ez da beste urteetan bezain interesgarria izango baina beste zenbait aspektuk oso interesgarria egiten dute. Aurtan, lau talde apuntatu dira txapelketa jokatzeko, lau talde oso berezi. Orain arte jokatzan zuten talde-

ak nahastu egin dira beraien artean eta talde bakoitzak zenbait gaztetxo hartu ditu. Horrela, taldeak nahiko parekatuta egotea lortu da eta bide batez gaztetxo hauek futbitoan jokatzan ikasteko aukera izango dute. Ideia honek aurrerantzean bere fruituak emango dituela ziur gaude.

Mutilei dagokienez, txapelketak bere erritmoa jarraitzen du eta Zeleta taldeak bere hasiera onari eusten dio. Azken ihardunaldian txapelketa irabazteko faborito nagusiak diren Heskeitakan aurka berdindu zuten hauek (2-2). Bestalde, aipatu arbitratzerako orduan urteroko arazoekin jarraitzen dugula: Ordu erdiko atzerapenak... Errudun nagusiak kanpoko taldeak dira. Erabaki latzak hartu behar ko dira hau gerta ez dadin.

### Hurrengo ihardunaldia

Ordua	Partidua	Arbitroa
3.00	Gaztiak-Txalaxok	Ay! te va
4.00	Ay! te va-Heskeitak	Irama
5.00	Irama-H.H.H.E.P.	Hesk.

	Jok.	Ir.	Ber.	Ga.	Pun.
1.- Zeleta	4	2	2	0	6
2.- Heskeitak	3	2	1	0	5
3.- Patxi T.	4	1	2	1	4
4.- Txapela	3	1	1	1	3
5.- Irama	3	1	1	1	3
6.- H.H.H.E.P.	3	1	0	2	2
7.- Urien	3	1	0	2	2
8.- Ay! te va	3	0	1	2	1

### Goleatzaileak:

Oxel (Patxi T.)	12gol
Koldo (Patxi T.)	6gol
Ubera (Txapela)	6gol
Iñaki (Txapela)	6gol

Hozkailuak eta izozkailuak aire girotua.



Salbador 21  
Berraondokua 7  
Tel eta faxa: 78 90 46



I  
L  
E  
A  
P  
A  
I  
N  
D  
E  
G  
I  
A

Mª ESTHER

Tel: 76 81 67

P  
A  
T  
X  
I

T  
A  
B  
E  
R  
N  
A

Salbador 3  
Tel: 768093

Fernando  
Ojanguren

Mª Jesus  
Mujika

## Goio Sarasua

Igeltzeritza lanak

Teilatuak

Sukaldeak

Etxaurreak

Komunak

Otzango Behekoa Baserria. Tel: 860156



Jesús Mari Montiel

ITURGINTZA  
ETA BEROGAILUAK

Aretkale 3.

Mo: 908773950 Eibar Tel: 700719

KONPONKETAK SUKALDE  
ETA BAINUGELATAN

# UMEEN - DEIA



## "Umeen-Deia" aldizkarixan elgetarrak idazle

Hemen atalian, 1951. urtian sortu zan *Umeen Deia* aldizkarixan parte hartu ebenen artian, Elgetarrak be badiela ikustiak, bultzatu gaitu aldizkariko pare bat txiste edo pasadizu *Goibekolaken* argitaratzia.

Felipe de Murietak sortu eban hau aldizkarixau. Nahiz eta atzetik hamaika kolaboratzaile izan, bi ale besterik ez zian argitaratu.

Kolaboratzaileak umiak zian, Euskal Herri osoko umiak.

Honek ume euskaldunok 885 izatera ailegau zian, eta egin zittuen kolaboraziñuak 1. 500 inguru.

*Umeen Deia* ez zan aldizkari politikua, ez filologikua, ez eta literarixua. Orduko euskerian egotriak beste zeozer eskatzen eban. F. de Murietak argi eukan euskaria desagertu ezkeru, Euskal Herriak ez ebala aurrera eiño: " Euskaria ez badou erabiltzen, Euskal Herrixa hil eiño da" esate eban.

Orduko haurrak euskerian inguruko interesa eukitzia gura

eban Murietak. Holako ideiak bultzau eben proiektu aurrera etaritzen: umiak euskaria maitatzia, eta bide batez, idazten baeben hobeto.

Aldizkarixak hasiera hasieratik euki eban entzute haundixa. Kanadan, Argentinan, Estatu Batuetan... bertan bizi zien euskaldunak oso gustora hartu eben proiektu barrixa.

Orduan denporan, umiak euskeraz idaztia zaila zan, baiña ondo baiño hobeto erakutzi eben gura dabenantzat ez dauela eziñik.

Egun batian Orei- Zarrak esan zien mutikoai:  
-Zeiñek ekarriko dit takorria?

Ta mutikoak ekarri zotzen takorria. Ta Orei-zarrak esan zotzen etortzeko bere etxera keisa kendutakuan, eta eldu ziranian juan ziran jaterra, ta arbolan jaten zaudenian. Orei zarrak esan zien mutikoai:

-Or dago ataizan Jesukristo, ta errezatu leikezue <Jesukristo nere jaun>; eskopetiakin etorriko naiz tiro bat emotera.

Ta mutikuak ari entzunda zelaian bere bueltaka juan ziran, eta Orei-zarrak atzetik barre egin zuan.

Agirrezaldegitar Alberto  
10 urte zittuanian

Egun batean, seme bat jun zan aitarengana esatera:

-Aita, aita! Bigarren nabil eskolan.

Eta aitak:

-Zelan ori?

Baiba, Juantxo eta ni gaozelako bakarrik...

Ojangurendar Pedro Mari  
9 urte zittuanian

- Nork jan ditu maigañeko keixak? Ik jan al dituk, Joxe?

- Ez, ama. Nik ez.

- Nork bota ditu bada lurrera ezur oiek?

- Ezdakit, ama. Nik ezur ta guzi jan ditut.

Bolinagatar Jorje  
13 urte zittuanian

**ER  
HARATEGIA  
ASTI**

San Roke 6  
Tel: 768168.

**M<sup>a</sup> Karmen  
Lenzeria**

Lenzeria eta  
kosmetika gaiak.

Salbador zeharbidea.  
Tel: 78 90 40

**IAPAM**

Galdaragintza arina  
Hoditeria  
Errementeritza  
Soldadura homologatuak

**Antonio Rodrigues Da Cruz**

BERRIONDOKUA INDUSTRIALDEA, 8 - ELGETA  
Tel: 76 81 01 Faxe: 78 90 14



Argazkia: Dionisia eta Dolores Aranzeta

## Maalako monjekin ikasten

1950. urtean ume pilo hau Elgetako eskolan zegoen. Zintzo ikusten ditugu. Batik-bat beheko lerroetakoak, eskuak gurutzaturik eta aurpegi serioekin. Ez dakigu ordea zintzotasunaren seinale hutsa den edo bestelakoak ote ziren. Hainbesteren artean eta lerroka ez daudenez, gutxi gora behera jarriko ditugu izenak.

**Goiko lerrotik hasita:** Juanita Retolaza (estankeria), Itziar Sesto Azpi, Irene Olabarria, Libe Sestokua, Ana Carmen, Maitere Irazabal, Juanita Kantoikua.

\* Dolores eta Dionisia Larrabiltxokuak, M<sup>a</sup> Paz Urbedeinkatukua, Benedita Sesiakua, Begoña San Juan, Lidia Urbedeinkatukua.

\* Mari Tere Zabala, Aguazilan loibia, Isabel Berrondokua, Miren Aranzeta, Maritxu Sesiakua.

\* Felisa Zabaleta, Itziar Beninona, Carmen Abade, Rosarito Rokena, Maritxu Egulusekua, Maritxu Beketxe, Kontxita Albistei, M<sup>a</sup> Luisa Sestokua, Mari Carmen, M<sup>a</sup> Asun Sesto Azpikua, Maribi Kalengua, Pilar Albistei.

\* Ezezaguna, Mikeletiana, M<sup>a</sup> Carmen Zabaleta, M<sup>a</sup> Asun Matiasenekua, Mertxe Sesto Azpi, M<sup>a</sup> Ester Sestokua, Arrate Uruburukua, Irene Etxebarri, Rosita Zeleta, Begoñita Luziona, Aurorita Bastarririkakua.

\* Martoneko hiru anaiak, Ana M<sup>a</sup> Zabalondo, Angel Bastarririkakua, Lapurdiko Lehengusuak, Jesusita Altubekua, Fernando Urrejalei, Luis Mari Altube, Kontxita Albistei, Sagastitxukua.

\* Lehenengo hirurak ezezagunak, Jose Antonio Kalengua, Jose Inazio Oleikua, Inazio Abadekua, Luis Mari Torrekua eta ezezaguna.



# Olabarria

## AUTOBUSAK

San Juan, 18

48230 Elorrio (Bizkaia)

Telefonoak:

94 - 623 16 47 (Bulegoa)

94 - 658 21 55 (Etxekoa)

Tel. Mugikorra

908 - 67 52 56 (Eibar)

**EUSKADIREKIN  
HAN ETA HEMEN**



**EAJ  
PNV**

**EGI eguna aurten Elgetan!**


Martxoak 29, 30 eta 31an ospatuko da. Jai honetarako, euskal giroa bultzatuz, ekitaldi ugari antolatu direlarik.

- EGI eguna EGIkideen jai bat izateaz gain, herritarron jai ere izan dadila.




**ZORIONAK ELGETA**

*independentzia*



**BOZKATU**



**HERRI BATASUNA**